

## ● Miren Etxabe gogoratzuz

# Kulturaren eta politikaren bizigarri



BAIONA 1938

**!** Aurreneko Euskal Jaietan (1924an), Miren Etxabe izeneko emakume bat, *Xales* esanda ezagunagoa beharbada, Kaperotxipirekin-eta festa girotzen aritu zen. Emakume hura, gainera, idazlea eta itzultzailea izan zen, politikaria eta hizlaria, Eresoinkarekin Europan kantuan ibilia eta Zarauzko aurreneko ikastolan irakasle...

**Z**aila da lerro hauetan Miren Etxaberen berri ematea, nahiz eta hari buruz luze eta zabal aritzeko motiborik badugun. Zarautzen, gerra aurretik, eltze guztietako burduntzalia izan zela dirudi; guk haren ekintzen zipritzin batzuk baino ez ditugu eskainiko.

Edozein aitzakia izan zitekeen ona Mireni buruzko erreportaje bat egiteko: emakumearen eguna izan zitekeen, ez baitira asko izango gerra aurretik hitzaldiak ematen aritu ziren emakumeak; euskaraz idazten zuenik ere gutxi, seguru. Politikaren bidea ere aintzat hartzekoa litzateke, Emakume Abertzale

Batzan kargu inportanteak izan baitzituen Mirenek. Guk, oster, Euskal Jaien atarian gaudela aprobeztatu dugu.

### Euskal Jaiak

Miren 1903an jaio zen Zarautzen, Kale Nagusian. Hari buruz daukagun aurreneko berria Euskal Jaien sorrerakoa da, 1924koa, eta argazkian ikusten denez, hasiera-hasieratik festaren animatzaileetako bat izan zen. Izan ere, Euskal Jaiak Mirenen gustuko ziren bi ezaugarri zituzten: batetik, euskal kutsu nabarmena zuten (euskal giroa berpiztea izan baitzen





MIREN ETXABE 1924KO EUSKAL JAIETAN (EZKERRETIK HASITA LEHENENGOA)

antolatzaileen asmoetako bat); bestetik, Euskal Jaiak kultur-adierazpide ere baziren (karrozak, dantza eta musika, estanpak...).

Urte haietako bizikizunak eta, oro har, Zarauzko garai hartako bizimoduaren gorabeherak, ia berrogeita hamar urte beranduago esplikatzen zituen Mirenek mahai-inguru batean; Marina Aranzabalek eta Agurtzane Azpeitiak idatzitako *Zarauzko Euskal Jaiak* liburuan ematen da horren berri: 1973ko irailaren 4an izan zen, *Euskaltzaleak* izeneko taldeak antolatutako Euskal Astearren barruan. Mirenekin batera, zarauztar jende ezaguna egon zen mahaian: Juan Iruretagoiena (apaiz eta idazlea), Evaristo Uranga (sendagilea), *Ixpilla* (korrikalaria) eta Juanito Laskibar (organo-jolea eta Koro Parrokialeko zuzendaria).

### Idazle, hizlari eta politikari

Mirenen aurreneko idazlana, *Itziar'ko Ama* izan zen (Salvador Arriola apaizak gazteleraz idatzitako *La Virgen de las angustias* antzerki obraren itzulpena). Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren *Juventud* aldizkariak antolatutako literatur lehiaketa irabazi zuen Mirenek idazlan harekin, eta 1929ko irailaren 7an estreinatu zuten Azpeitian. Zarauzko Parrokiko Gaztediak bazuen antzerki-taldea, Don Fernando Unanue eta Don Venancio Amezti apaizak buru zituena, eta talde hark antzestu zuen obra Azpeitian. Geroa, antzerkirako goioak herriko *Naste Borraste* talde-

an aritzera eraman zuen Miren, ahizpa Juanitarekin batera.

Mirenen idazle bokazioa, baita politika-bizitza eta hizlari izaera ere, oso lotuta daude abertzale sentimenduekin. Sentimendu horrek politikara bultzatu zuen Miren, eta EAJren mezua bereganatu zuen: euskara, euskal nazioa eta kristautasuna («euskaldun fededun» eskema aldarrikatzen zuen, azken batean, gerra aurreko abertzaletasunak).

Bide horretatik sortu zen Emakume Abertzale Batza, EAJ alderdian emakumeen protagonismoa indartzeko asmoz sortutako taldea. Hogeita hamargarren hamarkadaren hasieratik, egunkariak Miren Etxaberen hitzaldien berri ematen digute: emakumeak zirikatzea eta propaganda egitea zen haren egitekoa. Hizlari apartaren fama zuen, eta alderdiko hizlari onenen artean maiz agertzen da: Jose Antonio Agirre (geroago Eusko Jaurlaritzako lehendakari izango zena), Telesforo Monzon, *Aitzol* eta Arantzazu Barrena (1931n eta 1932an Zarauzko Emakume Abertzale Batzaren presidentea izan zena), besteak beste.

Hitzaldi hauetako bat da Mirenek utzi digun bigarren idazlana: 1930eko apirilaren 27an, Donostian, *Euskal Esnalea*-k gonbidatuta, *Zorionaren iturria gizonak non du?* izeneko hitzaldia hain justu. Hitzaldirako prestatutako laburpena, Olerti Etxeak argitaratu zuen 2002an (Jose Luis Padronek egin zuen transkripzioa).

MARIA ETXABE  
*Zorionaren iturria  
gizonak non du?*



OLERTI ETXEA  
ZARAUTZ  
2002

Orra egun guziko gure lanak.  
Atzo konpondutako kaltzerdiak,  
gaur orpotik patatak agirian;  
bazkari eta aparria,  
bapo daramate sabelian.  
Atzo bezela gaur,  
gaur bezela bihar;  
orrela urteko egunak  
guretzako izaten dira.  
Gizonak, etxe bat egiten ba-dute,  
urtea etorri eta urtea jun  
an dago ura tente-tente;  
sortzi ordu bakarrik jardun  
eta, guzia egin dutela uste.

Nere auzoko emakume batek ala esaten du  
guk ere, etxeak egiten ekinbearko degu,  
zenbait gizonak baño obeto egingo genduke  
eta berak, egitea dauzke emakume lanak,  
ordun ikusiko gera.

MIREN ETXABEREN HITZALDI BATEN LABURPENA (1930)

1930eko uztailaren 29an, Donostian, emakumeek euskarari egindako omenaldi-ekitaldiak antolatu zituen *Euskaltzaleak* taldeak. Mirenek *Emakumea eta euskara* izeneko hitzaldia eman zuen bertan. Ekitaldi hura aitzakia hartuta, *El Día* egunkariko *Euskal Orria*-ko ohiko zutabetik Ander Arzelusek (*Luzear* goitizenaekin), haserre antzera, emakumeak zirikatu zituen idazle bokazioa-edo zutenen arteko billkura ahaleaginean kale egin eta gero. Emakumeak, banan-banan, erantzunak ematen joan ziren egunkarian, eta *Lehenengo andereño idazle batzarra* antolatzea erabaki zuten. Zarautzen izan zen emakume-idazleen topaketa hura, eta hamabi emakume elkar-tu ziren. Ekitaldi nagusia Kulixkan egindako bazkaria izan zen, eta Mirenek bertan egindako harrera-hitzaldia *Luzear*-ek transkibatuko zuen hurrengo egunetako *El Día*-ko zutabearen. Azken hau eta Policarpo Barrena (Gipuzku Buru Batzarraren presidentea) ere han izan ziren.

1932ko maiatzaren 8an, Emakume Abertzale Batzak Zarautzen zuen lokala inauguratu zuten. Han izan ziren,

hizlarien artean, Arantzazu Barrena, *Altzeta*, Mercedes Kareaga, Telesforo Monzon eta Jose Antonio Agirre. Eta Miren Etxabe, noski. Aurreneko aldiz, gainera, Lapurdiko eta Zuberoako lagunak izan ziren. Basarrik bertsoak kantatu zituen, dantzariak dantza batzuk egin zituzten, eta Mateo Mujika gotzainari telegrama bat bidali zioten (Errepublikaren kontra hitz egiteagatik, kanporatu egin baitzuten). 1933an eta 1934an Miren izan zen Zarauzko Emakume Abertzale Batzaren presidente.

1934ko udatik 1935eko udaberrira hitzaldirik ez zen izan, giro politikoa beroa zegoelako (1934ko urriko iraultzagatik eta, batez ere, abertzaleen lokal gehienek itxieragatik). Gero, gerra bitartean, hitzaldiak ematen segitu zuen Mirenek.

Gerra etorri zenean, 1936an, Eusko Jaurlaritzak Bilbon eta Laredon zituen etxeetan egon ziren zerbitzen Miren eta haren ahizpa Juanita. Gero, biek muga pasa zuten eta Eresoinka taldeko abesbatzan sartu zen Miren, 1937an.

*Alustiza Autobusak*  
*Alustiza Bidaia S.L.*



Palazio Etxea- B Laurgain, 6  
20809 AIA - GIPUZKOA  
Tel.: 943 13 28 93 - 83 08 80



**KIDE**  
*Ileapaindegia*  
Zutikako Solariuma

Tel: 943 83 05 61  
Zigordia Kalea 44-46 Zarautz



ARGAZKIA: LIPNITZKI

MIREN ETXABE ERESOINKA ABESBATZAREN AURKEZPENEAN (PARIS 1937)

**Eresoinka**

Ez da Txaparro aldizkarian Eresoinkaren berri ematen dugun aurreneko aldia; Esteban Berazadiri egindako erreportajea, Esteban talde hartan dantzan aritu zela esan genuen. Talde hark abesbatza ere bazuen, hasiera-hasieratik gainera (dantza-taldea geroago sortu zen). 1937ko abenduaren 18an estreinatu zen Eresoinka Parisen, eta 1939ra arte iraun zuen, kulturaren bidetik Euskal Herriaren egoera Europan azaldu asmoz.

Ez dakigu Mirenek ze bide hartu zuen taldean sartzeko. Kontua da Mirenek bazuela harremana EAJko buruekin, eta baliteke haien bidez sartu izana taldean.

Miren taldeko irrintzilaria zen Jesus Elosegirekin batera. Abesbatzan aurreneko-kontraltoekin kantatzen zuen. Harreman estua izan zuen Durangoko Aurora Abasolorekin. Aurora ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula: bokalizazio ariketak hark egiten zituen, eta eskarmentu handiko emakumea zen kantuan; Italiako eta Argentinako koroetan aritua zen, eta Bilboko Kontserbatorioan irakasle izan zen gerra ondorenean. Bien arteko harreman estuaren seinale da, Aurorari Mirenen ondoan eman ziotela lur hil zenean.

Europako antzoki onenetan ibili ondoren, 1940an Mirenek etxerako bidea hartu zuen ahizpa Juanitarekin batera. Etxean ziren gurasoak, eta baita ahizpa Karmen ere, haiek zaintzeagatik Zarautzen gelditu zena.

**Gerra ondorena**

Gerra ondoko urteak ez ziren samurrak izan Mirenenzat, ezta haren senideentzat ere. Familiak denda zuen Kale

Nagusian, Xales esanda ezagutzen zena, baina gezurrezko salaketen bidez ondasunak kendu zizkieten eta denda itxi behar izan zuten, politika kontuak medio. Berririo zabaldu zutenean, hainbatek boikota egin zion dendari urteetan.

Gauzak horrela, ez da harrizkoa Mirenen bizimodua goitik behera aldatu izana: gerra aurretik batetik bestera, jendaurrean ibilitako emakumea izatetik, isiltasun osora igaro zen. Nekez aurki daiteke haren izenik gerra ondoko egunkarietan.

1965ean, politika-giroa zertxobait apaldua ordurako, Zarautzen ikastola sortzeko pausuak ematen hasi ziren. Frantziakotarak utzitako lokalean, bi andereño hasi ziren klaseak ematen. Sabin Unzurrunzagak, garai hartako lehen-dakariak, hara zer dioen *Zarauzko Ikastolak 25 urte* liburuan: «Uste baino ikasle gehiago izendatu ziren lehen ikastaroan, eta laguntzaile bat hartu beharra izan genuen, horrela Juanita and. kontratatu zen. Herriko emakume aberetzale bat ere, Maria Sales, prestatu zen laguntza eskeiniatz, eta batere kobratu gabe».

1993an hil zen Miren. 2000an, *Itziar'ko Ama* idazlana-ren eskuizkribua Euskaltzaindiari eman zion familiak. 2002an, *Zorionaren iturria gizonak non du?* hitzaldiaren laburpena argitaratu zuen Oleri Etxeak, Nazioarteko Poesia Egunaren oroigarri. Koldo Mitxelena Kulturunearen Urkijo Fondoan daude gordeta Mirenek hitzaldi horretarako idatzi zituen hamaika orrialdeak

**XABIER ETXABE**

*\* Eskerrak Galder Unzaluri, erreportaje hau egiten lagundu didalako.*



PENTSIOA  
TABERNA  
JATETXEA

Ondo pasa Euskal Jaiak!!

Tel.: 943 83 53 57 • Faxa: 943 83 37 31 E-posta: info@txikipolit.com  
www.txikipolit.com